




Hipoteka merkatuak hozten jarraitzen du

Etxebizitzaren gaineko hipotekak Urte bakoitzeko urtarriletik irailera




Iturria: INE.

Aurtengo lehen bederatzi hilabeteetan, etxebizitza erosteko hipoteken sinadurak %15,6 egin du behera, aurreko urteko aldi beraren aldean. Zehazki, irailera arte 15.000 hipoteka inguru eratu ziren Euskadin, aurreko aldian baino ia 3.000 gutxiago. Interes tasa altuek baldintzatzen dute bilakaera hori.

Azalera handietako salmentak %0,6 gutxitu ziren

Azalera handietako salmentak Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: Eustat.

Urrian, EAEko azalera handietako eta elikadura kate handietako salmentak %0,6 jaitsi ziren aurreko urtearen aldean. Beherakada hori elikagaien salmentan (-%0,7) eta gainerako produktuetan (-%0,5) gertatu zen. Aitzitik, enpleguak bere bilakaera positiboarekin jarraitu zuen eta %1,2 hazi zen.



Txikizkako merkataritzak %3,3 igo zituen salmentak

Txikizkako merkataritza Euskadin
Urte bakoitzeko urria. Indizea




Iturria: INE.

INEk argitaratutako azken informazioaren arabera, **urrian txikizkako merkataritzaren salmentak %3,3 gehitu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean.** Aitzitik, aurreko hilabeteetan ez bezala, salmenten hazkunde horrek ez zuen ekarri enpleguaren gorakadarik (%0,0).

Estatuko KPIa %3,2an kokatu da azaroan

Estatuko KPIa
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

Estatuko KPIaren adierazle aurre-ratua %3,2an kokatu zen azaroan, aurreko hilean baino hiru hamarren beherago. Bilakaera hori erregaien eta pakete turistikoaren prezioen jaitsierak eragin zuen. Halaber, elikagaien eta edari alkohol-dunen prezioen igoera 2022ko azaroan baino txikiagoa izan zen.